

Abarak

GORKA BEREZIARTUA

Bizi puta hau

Things that grandchildren should know. Mark Oliver Everett.
Little, Brown and Company, 2008.

AUTOBIOGRAFIKOAK EZ BALIRA, liburu honetan kontatzen diren gauza asko ez nituen sinetsiko. Egiantzekotasuna eta errealitatea bi kontzeptu desberdin dira eta batzuetan harremana duten arren, ez daude ezkondu. Aurrenekoa oso inportantea da fikzioan eta Mark Oliver Everetten bizitzak ez zuen galbahea pasako. Gauza gehiegi. Gauza txar gehiegi. Aitarekin –Hugh Everett III, fisikaria– ia harremanik ez zeukala kontatzen du. 51 urterekin ohean hilda aurkitu zuenean eta suspertzen saiatu zenean, gizon hura ukitzea arraroa egin omen zitzaion. Drogak eta problema psikologikoen arrebak bere buruaz beste egiten saiatzera eramane zuten. Eta azkenean, saiatzearen saiatzez, lortu ere egin zuen. Ama geroago ikusi zuen desagertzen, biriketako minbiziak astiro murtxikatuta. Neskekin gorabeherak nerabegarora iritsi aurretik. Eta gero, zer esanik ez. Drogak, delinkuentzia, gehiegikeria. Eta musika, bizitzaren zauriak kauterizatzeko.

Zeren, orain arte esan ez dugun arren, Mark Oliver Everett musikaria da, Eels taldeko burua. Eta talde horren musika oso konbentzionala ez den gisa berean, liburu hau ere ez da musikari baten autobiografia konbentzionala. Ez dago norberaren ibilbideko beltzak zuritzeko asmorik; ez du ezer ezkututzen –neskaren baten izena salbu, eta betiere inor estualdiren batean ez sartzeko asmoz–. Everettek historia bat zeukan kontatzeko eta ahalik eta modu zintzoenean egin zuen, girlandarik gabeko estiloa erabiliz.

Liburuaren lehen parte abentura-nobela gisa sailka liteke; edo biziraupen-gida bezala. Zergatik ez, inori laguntzeko asmorik gabe idatzitako auto-laguntza liburu duzu hau. Egia da bukaerako kapituluak ez direla hain “entretengarriak”. Drama familiarra amaitzen doan neurrian –kide gehiago ezin ziren hil, izan ere–, musikari batek disko-industriarekin daukan gorabeherak hartzen dute protagonismoa. Irakurri bat merezi duen lana, dena den. Honen ostean burua galarazten dizuten problema horiek ez zaizkizu hainbesterako irudituko. Eta hala ez bada, behintzat Eelsen kantak hobeto ulertzeko baliagarria izango zaizu.



Things that grandchildren should know liburuaren gaztelaniazko edizioaren azala.



VITORIA GASTEIZ
EUROPEAN PRIMER CAPITAL

Gasteizen euskarazko hauek ez galdu

Gozatu euskaraz liburutegietan!

Gonbit-txartelak astebete lehenago

ALDABE

> Otsotz otso

Ipuin kontalaria: Lur Korta
Martxoak 15, 18:00 (2-4 urte)

> Foto-komik

Lantegia
Martxoak 17, 09:30 -13:30 (6-10 urte)

ARIZNABARRA

> Andineando

Bidaia-hitzaldia
Martxoak 16, 19:00 (gazte-helduentzat)

> Hala bazan ala ez bazan

Zurrunka teatro
Martxoak 29, 17:30 (+4 urte)

IBAIONDO

> Liburuak gure lagunak

Ipuin kontalaria
Martxoak 16, 18:00 (2-3 urte)

LAKUA

> Munduan zehar... entzun nuen

Ipuin kontalaria: Jakin kontalaria
Martxoak 16, 18:00 (+3 urte)

PILAR

> Birziklatzea dibertigarria da

Lantegia
Martxoak 10, 11:00 (5-6 urte) eta 12:00 (7-9 urte)

KONTZERTUA

>> XABIER MONTOIA

"Montoiaren Mundu Miresgarria"

Martxoak 4, 21:00

IBU HOTS

PRINCIPAL ANTZOKIA

>> OUT-IN

Kukai Dantza

Martxoak 8, 20:30

>> IPAR HAIZEAREN KONTRA

Tanttaka

Martxoak 14, 20:30

>> KlasikAT

Kepa Junkera. Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

Martxoak 18, 20:00

>> KAFKA ETA PANPINA BIDAIA

Tanttaka

Apirilak 1, 18:00 (+6 urte)

Maita dugun hura, euskaraz!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala